

Eskolaz Kanpoko Ekintzetarako arauak doazkizue. Berauek Ampak eta Eskola-kontseiluak onetsiak izan dira alde zurretik.

08-09 IKASTURTEAN BURUTUKO DIREN ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETARAKO ARAUAK

-Gurasoen ardura izango da ikaslea eskolaz kanpoko ekintzetara joatea.

-Nola ekintzetako sartu-irteeretan hala seme-alabak jasotzeko garaian ere ezinbestekoa izango da garaiz ibiltzea.

-Ekintza amaituta umeren bat jaso gabe geldituta bere familiakoekin harremanetan jartzerik ez badugu, gizarte-zerbitzukoek jakinaraziko diegu.

-ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK BURUTZEN DIREN BITARTEAN EZIN IZANGO DA FRONTOIAN EGON

-Ikasleek, burutu beharreko ekintza zein den, jantzi eroso eta egokiak erabili beharko dituzte.

-Ekintza burutzen den bitartean, portaera txarra duen ikaslerik badago, beronen familiakoekin harremanetan jarriko da begiralea bera eta Ampako arduraduna arazoa albait ondoen konpontzeko. Umearen jokaera txarrak bere horretan badirau, ekintzatik kanporatua izango da.

-Ikasleak arazoren bat baleuka zinez eskertuko genizueke Ampakoei edo begiraleari berari jakinaraztea. Adibidez: Alergiak, epilepsia-atakeak, arazoren bat dela medio botikak hartzen badabil, lotsatia izanda harremanetarako arazoak baditu... Era berean, gaiso egotea edo beste arazoiren bat dela medio ikasleak ekintzan huts egiten badu ezinbestekoa izango da ekintzaren arduradunak jakitun jartzea.